

LEHEN LAGUNTZETARAKO PRESTAKUNTZA LANGILE ETA BOLUNTARIOENTZAT

Proiektuaren xedea: talde profesionalari eta boluntarioei oinarrizko ezagutzak ematea lehen laguntzei eta desfibriladoreak erabili eta maneiatzeki buruz.

Proiektuaren deskribapena: lehen laguntza deritzenak zaurituei osasun-langileek tratamendu medikoa eman baino lehen ematen zaizkien laguntza dira. Ezinezkoa da osasun-arloko langileak leku guztie-



tan aldi berean egotea eta, horregatik, egoera bat ager daiteke non gure edo beste pertsona baten bizitza salbatzea gure ezagutzen araberakoa den. Iberocardio enpresaren bidez, Aspace Bizkaiak lehen laguntzei eta desfibriladoreak erabili eta maneiatzeari buruzko prestakuntza eskaintzen die plantillako pertsona guztiei. Gainera, boluntarioentzako prestakuntza laburragoa eskaintzen du.

Egindako hobekuntzak: bai talde profesionalak, bai boluntarioek, ezagupenak bereganatzen dituzte lan-bizitzako eta norberaren bizitzako egoerei aurre egiteko, hala nola, eztarri-trabamenduak, konortearen bat-bateko galerak edo bihotz-biriken gelditzeak, bihotz-biriken bizkortzearen eta desfibriladoreen bidez. Horrela, lan-arloko gaitasunak eskuratzeaz gain, prestakuntza jasotzen duen eta bizitzak salba ditzakeen pertsona bakoitzaren esparrura ere zabaltzen dira.

Ezaugarri bereizgarriak: lehen laguntzei buruzko oinarritzko ezagutzak izateak pazientearen egonkortzea, mina arintzea edo, are, antsietatea arintzea ahalbidetzen du, osasun-langileak iritsi arte. Lanbide-taldeak eta erakundeko boluntarioek lehen laguntzei buruzko ezagupenak izatea lagungarria da lan-istripuen ondoko larrialdi-egoerak, estresa sortzen dutenak, konpontzeko. Helburua da pertsonak egoera horiei erantzun



ahal izatea, ezagutza teorikoak eta teknikoak ez ezik, kudeaketa emozionala ere konbinatzen dituen ikaskuntza baten bidez.

Beste enpresa batzuetarako aplikagarritasuna eta irisgarritasuna: enpresa, elkarte, entitate... guztiek eman diezaiekete langileei prestakuntza, kontuan hartuta lehen laguntzei buruzko prestakuntza egokiak bizitzak salba ditzakeela.

Ezarri aurretik eta ondoren lortutako emaitzak: prestakuntza jaso duten pertsonak beren buruaz seguruago sentitzen dira eta erabaki egozienak har ditzakete. Osasun-larrialdiko egoera batek sortzen duen estresa hobeto kudeatzeko gai dira. Prestakuntzaren ondoren, konturatzeko dira garrantzitsua dela jokatzeko jakitea, nola jokatu eta estresa nola saihestu jakitea.